

- Txoriaren gorputzak eta ekimenak –bere baitan jira-biran ibiltzeak– ematen diote forma habiari.
- Habiak forma biribila dauka, eta habia da txoriaren lehen gunea, aurki barrutik kanpora eta kanpotik barrura hegan egingo duen txoriaren lehen etxe goxo, lasai eta kutuna.
- Leku batek ez du ezer bermatzen, baina lekuaren formak pista asko ematen du toki horretan egin gura denaz.
- Espazioz aldatzen dugunean ohiko zentzuak utzi eta psikearen gune berritzaileekin harremanetan hasten gara.
- Intimismoa: kutuna, barnekoa, etxekoen artekoa, lagunartekoa, goxoa, lasaia.
- Isiltasuna ere entzun daitekeen gunea.
- Erosotasun aktibora eramango gaituena, lasai baina erne.
- Elkar ikusi, elkarri entzun, elkarri kontatzeko lekua.
- Oihartzunik gabea, epela, zaratarik gabea.